

**LEITZAKO UDALEKO IDAZKARITZAKO PLAZA ALDI BATERAKO ETA  
ADMINISTRAZIO ARAUBIDEAREN ARABERA BETETZEKO  
BALDINTZAK**

**1. oinarria. Arau Orokorrak.**

1.1.- Deialdi honen helburua Leitzako Udaleko Idazkaritzako lanpostua aldi baterako eta administrazio araubidearen arabera kontratatzea da.

1.2.- Egingen diren hautapen probak 5. oinarrian adierazitakoak dira.

1.3.- Egingen den kontratua, berriz, administrazio kontratua izanen da, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dabilzan Langileen Estatutuaren 88 b) artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorrira. Ordezkatzeko izan den arrazoa bukatzean amaituko da kontratua ere, eta kasu guztietan, arauzko prozeduraren bitartez plaza behin betiko hornitzen denean.

Era berean, kontratua iraungi egingen da Nafarroako Administrazio Publikoen administrazio araubidearen arabera langileak kontratatzeko modua erregulatzeko duen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 8. artikulua aipatzen dituen arrazoiak edozein gertatuz gero.

Bi hilabeteko probaldia ezarriko da, eta horrek iraun bitartean, aldeetako edozeinek kontratua deusezta dezake alde bakarretik.

1.4.- Lan ordutegia deialdia egin duen Administrazioak ezarritakoa izanen da; betiere, zerbitzuak dituen premietara egokitutakoa. Ordutegi hori ere aldatu ahal izanen da.

1.5.- Lanpostuak A mailari dagokion oinarritzko ordainsaria izanen du, ordainsarien Behin Behineko Araudian xedatutakoaren eta langile talde organikoan dauden ordainsari osagarrien arabera.

**2. oinarria. Hautagaiek bete beharreko baldintzak.**

2.1.- Lanposturako hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean:

A)- 16 urte beteta izatea baina ez gairatzea erretiroa hartzeko gehieneko adina, eta baita espainiar herritartasuna edo zeinahi estatu kidetakoa edukitzea ere.

B)- Zuzenbideko, Zientzia Politikoetako edo Soziologiako lizentziatu titulua edukitzea.

C)- Kargua egikaritzeko beharrezkoa den gaitasun fisikoa eta psikikoa edukitzea.

D)- Funtzio publikoak egikaritzeko zigortuta edo gaitasungabetua ez egotea, eta Administrazio Publikoko zerbitzuren batetik bereizita ez egotea.

E)- Euskara ezagutzak izatea, eta hala egiaztatzea EGA titulua edo Hizkuntza Eskola Ofizialean baliokidea den Gaitasun Egiaztagiria aurkeztuta, edo, bestela, eskatutako ezagutza proba espezifikoaren eginda, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **3. oinarria. Prozedura.**

3.1. Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onartutako Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Araudiaren 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta, aldi baterako langileen hautapen prozedurek lagundu behar dute kontratazioa ahalik eta arinena izan dadin.

Honako hau larrialdiko kasua dela aintzat hartuz (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 239 eta 239 bis artikuluetan adierazitako funtzioak idazkaritzako lanpostuari dagozkionak: hots, organoen ekintza eta erabaki guztietan fede publikoa ematea eta toki erakundeen organoei lege aholkularitza ematea), udal eskumenak eta horien ohiko kudeaketa ez eteteko, interes orokorraren defentsan eta herritarrei zerbitzua emateko asmoz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Doneztebeko Enplegu Bulegoari eskatuko zaio enplegu bila dabilen eta deialdi honetako 2. oinarrian aipatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituzten pertsonen zerrenda emateko (baita enplegua hobetu nahi dutenena ere). Hala, zerrenda horretako pertsona guztiek parte hartu ahal izanen dute hautapen probetan.

Era berean, hautapen prozesuan parte hartu ahal izanen dute baldintza horiek guztiak bete eta hautapen probak hasi aurretik Epaimahaiaren aurrean egiaztatzen dutenek enplegu bila dabilzala edo zeinahi Enplegu Bulegotan enplegua hobetzeko eskaera eginda dutela.

### **4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

4.1. Honako hauek osatuko dute Epaimahaia:

- Epaimahaiko burua: Leitzako Udaleko alkatea.  
Ordezkoa: Leitzako Udaleko alkateordea.
- 1. bokala: Jon Ander Mendinueta Otxotorena, Oltzako Udaleko idazkaria.
- 2. bokala: Silvia Gonzalo Echarri, Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria.
- 3. bokala: Natalia Rodriguez Aguado, Leitzako Udaleko orain arteko idazkaria.

- 4. bokala: Miriam Arozena San Miguel, Goizueta-Aranoko Udaleko idazkaria.

4.2. Epaimahai kalifikatzaileko idazkaria kideetako bat izanen da. Hark idatziko ditu dagozkion aktak, epaimahaikide guztiek sinatuko dituztenak.

4.3. Epaimahaia modu baliozkoan osatzeko eta hark behar bezala jarduteko, ezinbestezkoa izanen da kideen gehiengo absolutua bertan izatea.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz erabaki beharko ditu deialdiko oinarriak interpretatzearekin eta aplikatzearekin lotuta sor daitezkeen auzi guztiak. Berdinketa izanez gero, epaimahaiko buruak kalitateko botoa erabili ahal izanen du.

## **5. oinarria. Probak.**

5.1.- Oposizio fasea hasi aurretik, euskara proba eginen dute deialdi honetako 2.1.E oinarrian eskatzen den euskara ezagutza dokumentu bidez egiaztatzen ez duten eta proba egiteko interesa duten hautagaiek. Proba horretan, idatzizko eta ahozko ariketa bana egin beharko dute. Bertan, pertsona horrek EGA hizkuntza mailaren edo baliokidearen araberrako gaitasunik baduen ala ez erabakiko da. Proba horiek Herri Administrazioaren Nafarroako Institutuko (HANI) langileek eginen dituzte. Eta horien ondoren, oposizioko proba espezifikoak etorriko dira.

**5.2.- Proba teorikoa:** Idatzizko ariketa bat da, non test motako galdera motz batzuei erantzun beharko zaien. Araudi hauei buruzko galderak izanen dira, batik bat:

- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen.
- Toki erakundeen ondasunak arautzekoa.
- Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudia (2568/1986 ED).
- 30/1992 Legea, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Administrazio Jardunbide Arrunta arautzen dituen.
- Administrazio Publikoek ondarezko erantzukizun gaietan dituzten prozeduren araudia.
- Kontratu Publikoen Foru Legea.
- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea.
- 4/2005 Foru Legea, martxoaren 22koa, ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzkoa.
- Lege indarra duen 251/1993 Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzura diharduten Langileen Estatutuaren testu bateratua eta hura garatzeko araudia.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta hura garatzeko araudia.
- Anikote Leitza SL Udal Elkartearen Estatutuak.
- Leitzako herri ustiapena arautzen duen ordenantza.

Proba honen gehieneko epea Epaimahaiak zehaztutakoa izanen da, eta gehienez ere **50 puntu** lortu ahalko dira. Galdera guztien hasierako balioespena berbera izanen da. Eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituen hautagaia kanpoan geratuko da.

5.3.- **Proba praktikoa:** Bi kasu praktiko ebatzi beharko dituzte. Horretarako, bakoitzari buruzko txosten juridiko bat idatzi beharko dute. Aipatu beharreko ezaugarriak eta idazteko izanen duten denbora epaimahaiak zehaztuko ditu, arestian adierazitako gaiekin loturik. Gehienez ere **50 puntu** lortu ahal izanen dira: 25 puntu kasu bakoitzeko. Eta orotara 25 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanpoan geratuko dira.

5.4. Ez badago proba guztiak gainditu dituen hautagairik, edo hautagai bat egiaztatzean hark uko egiten badio deialdia egin duen Administrazioak kontrata dezan, Administrazioak erabaki dezake egindako probetakoren bat gainditu duen beste pertsona bat kontratatzea, betiere, hautapen prozesuan lortutako amaierako puntuazioaren ordenari zorrotz jarraituz.

5.5. Ariketa bakoitzerako deialdia behin baino ez da egingen. Hautagaiak Nortasun Agiria edo euren burua identifikatzeko beste dokumenturen bat (epaimahaiak baliagarritzat jotakoa) aurkeztu beharko dute, bai eta dauzkaten merezimenduen egiaztagiria ere. Agertzen ez diren hautagaiak oposiziotik kanpo geratuko dira.

5.6. Hautapen probek iraun bitartean, adierazitakoarekin bat etorrita, hala eskatzen duten pertsona ezinduentzat, denbora eta baliabide egokitzapenak ezarriko dira.

5.7. Hautapen prozesuko probetakoren bat gainditu duten hautagaiekin zerrenda bat osatuko da, lortutako amaierako puntuaren arabera ordenan, eta zerrenda horretara joko da idazkaritzan egon daitezkeen batak betetzeko.

5.8. Euskara proba, hain zuzen, egitea eskatu dutenei jakinaraziko zaien egunean eta tokian gauzatuko da. Oposizioko ariketa espezifikoa, berriz, **2016ko azaroaren 15ean** hasiko dira, 09:00etan, Leitzan, horretarako prestatuko diren instalazioetan. Bertan, gutun-azal zigitatuaren sistema erabiliko da, eta ariketa praktikoetarako, aipatu gabeko lege testuak ere erabili ahal izanen dira.

## **6. oinarria. Epaimahaiaren proposamena.**

6.1. Azken proba egin ondoren, puntuazio gehiena lortu duen hautagaiaren kontratazio proposamena egingen dio Epaimahaiak Administrazioari.

6.2. Proposamena loteslea izanen da deialdia egin duen Administrazioarentzat.

6.3. Hautatutako pertsonak astebeteko epea izanen du lanpostuan hasteko, deialdia egin duen Administrazioaren kontratazio proposamena onartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Lanean hasi ezean (behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik) edo lanean hasiagatik lanpostua berriz hutsik geratzen bada, eskumena duen organoak aukera izanen du hautapen prozesuan lortutako puntuazio ordenaren arabera eskaintako kontratazioa onartzen duten hautagaiak kontratatzeko.

## **7. oinarria. Baliabideak.**

7.1. Deialdi honen, beronen oinarrien edo aplikazioen aurka, aukeran, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

A)-Berraztertze errekurtsioa, ekintza gauzatu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

B)-Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietarako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, errekurritutako ekintza edo hitzarmena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

C)-Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean, errekurritutako ekintza edo hitzarmena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.



Leitzan, 2016ko irailaren 12an

Mikel Zabaleta Aramendia  
Leitzako Udaleko alkatea

